

LEGAZPI / 'Bularretik mintzora' hurrei liburu bidea erakusteko

Datorren astetik aurrera hartu ahal izango dira liburutegitik maileguan egitasmoko materiala duten maletak.

ALEX AREIZAGA

Bularretik mintzora egitasmoa abiaraziko dute datorren astean Legazpiko Udal Liburutegian. Helburu nagusia 0 eta 6 urte arteko haurrengan irakurketa ohitura sustatzea da, gurasoei eta hezitzaileekin beren ingurune naturalean: etxean, eskolan eta liburutegian. Udalak, liburutegiaren bitartez eta Kultura Sailaren laguntzarekin sustatu du ekimena, Galtzagorri elkarteak gidatuta.

Hurrei hizkuntza "eraiki dezaten ere lagundu nahi dute. Liburu-diskoa kaleratu dute gurasoei eta hezitzaileei zeregin horretan laguntzeko. "Tradiziozko ereduak jasotzen dira han: sehaska kantak, haur txikiekin egiteko jolasak..., dio Galtzagorriko Itziar Zubizarretak. Kantuen eta ipuinen "eredu apalak, garbiak eta errazak dira, "ez imitatu ezin diren ereduak. Haurrek jaiotzen direnetik eredu horiek erabiltzen dituzte hizkuntza eraikitzeko. Ez da kantua polita izatea soilik, ezinbestekoak dira haurrek hizkuntza eraiki dezaten eta erritmoa edota entonazioa ulertzen has daitezen.

Etxean, eskolan edota liburutegian "isiltasun momentuak sortzeko nahia ere badute, "entzumena garatu ahal izateko eta isiltasun uneetan ipuinen edo kantuen bidez komunikazio pertsonala sortzeko, dio Zubizarretak. Datorren astetik aurrera eskuragarri egongo dira liburutegian Bularretik Mintzora egitasmoko maletak. Hamabost maleta daude guztira, eta bakoitzean 10 liburu inguru, haurrarekin irakurri beharrekoak. Liburutegiko harpidedunek eskuratu ahal izango dituzte. Legazpikoan 0-6 urte arteko 206 bazkide daude. Informazio gehiago www.bularretikmintzora.org webgunean jaso daiteke.

Lehendabizi, formazioa

Aurtengo ikasturtea, lehenbizikoa denez, hezitzaileen eta gurasoen formaziora bideratuko dute. Kanpaina sistematizatua da, eta zehaztu dituzte zer jarduera burutuko dituzten.

Urtarrilean bi hitzaldi egingo dituzte, lehena Juan Kruz Igerabide poetarekin hizkuntza emozionala garatzeko poesiaren beharraz. Bigarren hitzaldian Juan Karlos Alonso psikologoak haur literaturak haurren garapenean duen eragina aztertuko du.

Otsailean Pello Añorga idazle eta ipuin kontalaria izango da Legazpin, gurasoei liburu nola kontatu, irakurri eta begiratu azaltzeko. Ikasturtea amaitu aurretik Zubizarretak berak irakasleei zuzendutako hitzaldia egingo du, eskolan haur literatura nola txertatu erakusteko.